

eta notariotzaren zigilua.-----

----- AGIRI ERANTSIAK -----

"EUSKALTZAINDIAREN ALDE FUNDAZIOA FUNDACIÓN PRO
EUSKALTZAINDIA-REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA"
FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua. Sorrera, izena eta iraupena.

"EUSKALTZAINDIAREN ALDE FUNDAZIOA FUNDACIÓN PRO
EUSKALTZAINDIA-REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA"
izenarekin eratzen da kultura- eta gizarte-arloetako
fundazio bat, pribatua, eta iraunaldi
mugagabearekin.

2. artikulua. Araubide juridikoa, nortasuna eta
gaitasun juridikoak.

Fundazioak nortasun juridikoa du, berezkoa eta
bereizia, eta gaitasun juridiko nahiz jarduteko
gaitasun erabatekoak izango ditu. Ez du muga
gehiagorik izango fundatzaileek eratze-egintzan
adierazitako nahian, estatutu hauetan eta ezargarri
zaizkion lege-xedapenetan jaso direnak baino;
bereziki, ekainaren 17ko 12/1994 Legean jaso direnak
-Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzkoan-.

3. artikulua. Fundazioaren helburuak betetzea.

Aurreko artikuluan bildu diren mugekin,
fundazioaren helburuak betetzea, bai eta helburuon
inguruko gainerakoa ere, fundazioaren patronatuari
dagokio.

4. artikulua. Lurralde-eremua.

Fundazioak jardungo du Euskal Herrian, gehienbat
Euskal Autonomi Erkidegoan.

5. artikulua. Egoitza.

"EUSKALTZAINDIAREN ALDE FUNDAZIOA FUNDACIÓN PRO
EUSKALTZAINDIA-REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA"
fundazioak Bilbon izango du egoitza, Plaza Barrian,
15. zenbakian. Nolanahi ere, patronatuak geroago
alda dezake hori. Fundazioak, egitekoak aurrera
eramateko, establezimenduak eta bulegoak jar ditzake
beste herri batzuetan, patronatuak horrela
erabakitzen badu.

6. artikulua. Helburuak.



Hauek dira fundazioaren helburuak:

a) Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia erakundearen helburuak zein jarduerak osatu eta jarduera horiek guztiak babestu, erakunde akademikoa den aldetik, eta bere lanak bultzatu eta zabaltu, hala gizartean, nola hizkuntzaren eta kulturaren arloetan agerpena izan dezan.

b) Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia erakundeak gauzatzen dituen egitasmoak sustatu, eta, horretarako, erakunde publikoen eta pribatuen laguntza eta elkarlana bideratu. Gainera, aurrekoari kalterik egin gabe, Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia erakundeak instituzio publikoekin bestelako harremanak ere izango ditu, harreman iraunkorrak, eta lan horri aurka egiten ez diotenak.

c) Lankidetzatza-loturak ezarri, bai Europar Batasunarekin eta bere estatu-kideekin, bai bestelako estatuarekin euskaldunek horietan agerpenik badute, bai autonomia-erkidegoekin, bai akademiekin eta institutu nahiz erakunde publiko zein pribatuarekin -estatu barrukoak zein nazioartekoak-, zertarako eta Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia erakundeak egiten dituen lanak Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo bultzatzeko eta zabaltzeko.

d) Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia erakundearen jardunak enpresa-, zientzia-, ekonomia- eta, oro har, kultura-alorreko, pertsona ospetsuekin uztartu.

e) Bultzatu eta ahalbidetu, batetik, Real

Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia erakundeak informazioaren eta komunikazioen teknologia berriak erabiltzea, zertarako eta euskal hizkuntzaren erabilera eta benetako agerpena sendotzeko, informazioaren eta jakintzaren gizartean; eta, bestetik, hizkuntza baliabideen azpiegitura eratzea eta hizkuntza-corpusa bihar-etzi gizarteari ekartzea.

f) Euskal hizkuntzaren alde lan egiten duten taldeen eta pertsonen iritziak, esperientziak, joerak eta ekarpenak bideratu, Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia gizarteari gerturatzeko, eta erkidego eleaniztuna garatzen laguntzeko. Horretarako, batzarrak, ikastaroak eta sinposioak antolatuko dira, bai eta elkarlanerako beste edozein jardun ere.

g) Beste edozein ekimen eta ekintza, fundazioaren xedek lortzeko bada.

7. artikulua. Xedea aurrera eramatea.

Fundazioaren xedea zein jarduerak osatu, eta jarduerok fundazioak gauzatu ditzake egoki deritzon moduan; horien artean, beste erakunde edo organizazio batzuetan parte hartu. Eta, egiteko horretan, ez du beste mugarik izango legean ezarri direnak edo estatutu hauetan bildu diren xedapenetatik ateratzen direnak baino.

Ildo horretatik, fundazioaren xedea burutuko da, legean zehazten diren mugen barruan, horrela:

a) Fundazioak berak burutu dezake zuzenean, bere organoen bitartez; horretarako, jarduera-egitarau bati jarraituko dio, eta, jarduera-egitarau hori, patronatuak aldian-aldian prestatu eta onetsi beharko du.

b) Zeharka burutu daiteke, beste erakunde, sozietate edo organizazio batzuetan parte hartuta.

c) Beste fundazio, elkarte, kooperatiba edo sozietate batzuk edo bestelako erakundeak sortuta edo sortzen lagunduta, legean aukera hori ematen bada.



d) Beste erakunde edo pertsona juridiko nahiz fisiko batzuen jardueretan parte hartuta, horiek, nola edo hala, fundazioaren xedeak betetzen lagunduko badute, bereziki, fundazioaren inguruan.

e) Helburu horrekin, fundazioak laguntza ekonomikoak, aholkularitza eta lankidetzak profesionala ekarri edo eman eta jaso ditzake. Era berean, fundazioaren helburuok betetzeko, legatuak, dohaintzak eta diru-laguntzak eman daitezkeen sustatuko du.

II. KAPITULUA. KIDEAK

8. artikulua. Fundazioaren partaideak.

Fundazioaren partaideak kide sortzaileak (fundatzaile ere deituak), atxikiak edo ohorezkoak izan daitezke.

9. artikulua. Kide sortzaileak.

Fundatzaileek eskritura publikoari sortze-gutunaren izaera eman diezaiokete, eta, hartara, beste pertsona fisiko edo juridiko batzuk atxiki daitezke fundatzaile izateko; hala izango da, eratze-eskrituran atxikitzea gauzatzeko zein epe zehaztu eta epe horretantxe. Epea, gehienera ere, hiru urte izango da, eratze-eskritura egiletsi denetik hasita.

Fundatzaile izateko atxikitze-eskaerak, aldez aurretik ezarri den epearen barruan, patronatuko kideen hiru laurdenek onetsi behar dituzte, eta patronatuak berak zehaztuko du, hala denean, zein den izangaiek egin beharreko diruzko ekarpena.

10. artikulua. Kide atxikiak.

Eratze-eskritura egiletsi ondoren, baita aurreko artikuluan ezarri den epea igaro ondoren ere, fundazioari pertsona fisikoak eta juridikoak atxiki dakizkioke, atxikitako kide gisa, berorien jarduerak

edo ekarpenak fundazioaren helburua erdiesten lagundu ahal badute.

Atxikitzeko eskaerak, aldeztu aurretik aipatu dugun izaera dutenak, patronatuak kideek gehiengo osoarekin onetsi behar dituzte. Patronatuak ere zehaztuko du, hala denean, zein den izangaiek egin beharreko diruzko ekarpena.

11. artikulua. Ohorezko kideak.

Patronatuak ohorezko kideak izenda ditzake pertsona fisikoak edo juridikoak, modu nabarmenean fundazioaren xedea erdiesten lagundu edo laguntzen badute.

Den-denek eratuko dute, hala bada, fundazioaren ohorezko patronatua.

III. KAPITULUA. GOBERNU-, ORDEZKARITZA- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK.

12. artikulua. Patronatuak batza.

Patronatuak beteko ditu, modu eksklusiboan, fundazioaren ordezkariak, gobernua eta administrazioa, eta zeregin horretan ez du muga gehiagorik izango indarreko xedapenetan jasotzen direnak baino. Patronatuak beteko ditu fundazioaren jardueraren eraginkortasunez burutzeko, Zuzenbidearen arabera dagozkion ahalmenak eta gaitasun guztiak; besteak beste, estatutu hauek interpretatzea.

Aurrekoa gorabehera, patronatuak bere kide bati edo batzuei, baita kanpoko pertsona bati edo batzuei ere, pertsonak fisikoak zein juridikoak izan, eskuordetzean eman diezazkioke bere ahalmenak eta gaitasun guztiak edo batzuk. Salbuespen dira kontuak eta aurrekontuak onestea, baita fundazioaren ohiko kudeaketa baino harago doazen egintzak edo Babesleztaren baimena behar dituzten egintzak ere.

Goiko lerroaldean aipatu diren mugekin, patronatuak batzorde ordezkari edo batzorde betearazle bat edo batzuk eratu ditzake, unean-unean zehazten diren ahalmenekin, eta ahaldu orokor edo bereziak izendatu, egitekoak eta erantzukizunak mankomunatuak nahiz solidarioak izanda.

Eskuordetzeak eta ahaldu orokorrak, auzitan ibiltzeko direnak izan ezik, baita ezeztapenak ere,



Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira.

Patronatuko kideek kargua doan beteko dute. Hala ere, lanak eragindako gastuen ordaina jaso dezakete, gastuok behar bezala zuritu badituzte.

Adierazitakoari kalterik egin gabe, patronatuak fundazioaren izenean kudeaketak edo bestelako jarduerak egiteko ardura eman diezaioke gobernu-organoko kideren bati edo gainontzeko bati, eta, halakoetan, betetzen dituzten zereginekin bat datozen ordainak emango dizkie.

Patronatuko kidearen karguak bost urte iraungo du, nahiz eta berriro hauta daitezkeen mugarik gabe ondoz-ondoko aldietarako, iraunaldi berberarekin.

Patronatuko kide izatea ezin da inoiz ere eskuordetzean eman.

13. artikulua. Patronatuko batzaren eskumenak.

Ordezkaritza-, xedatze- edo administrazio-ahalmenetan, zentzurik zabalenean hartuta, patronatuak edozein motatako egintzak edo negozio juridikoak buka ditzake, eta ez du beste mugarik izango legeetan ezarritakoak baino. Gainera, fundazioko kideek urtero egin behar dituzten ekarpenak ere zehaztuko ditu.

14. artikulua. Patronatuko batzaren osaera.

Patronatuko batza hamabi kidek osatuko dute, gutxienez, eta hogeita lauk, gehienez. La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia erakundeak patronatuko lau kide izendatuko ditu.

Patronatuko batzaren lehenengo kideak eratze-eskrituran izendatuko dira, estatutu hauen xedapen iragankorrean ezarri denarekin bat etorritik.

Behin patronatuko lehenengo batza eratzeko epea igaro denean, patronatuko hurrengo kideak izendatuko dira estatutuen 21. artikuluan agindu denari jarraituta.

15. artikulua. Presidentea.

Patronatuak presidente bat hautatuko du bere kideen artetik, eta horrek patronatuaren deialdia egingo du, bere ekimenez edo bere kideen heren batek eskatuta, eztabaidak zuzendu eta erabakiak betearazi.

Patronatuko presidenteak, organo horren kide izateagatik dituen ahalmenak eta estatutu hauetan ematen zaizkion ahalmenak ez ezik, fundazioaren ordezkari izateko ahalmena ere badu, patronatuko batzaen eta fundazioaren beste organo batzuen erabakietatik ateratzen diren egintzak eta kontratuak egiten direnean, bai eta sortzen diren gatazketan, espedienteetan, administrazio- eta gobernu-arazoetan eta epaiketa barruko zein kanpoko arazoetan ere, horietan salatzaile, salatu nahiz beste edozein alderdi izan gorabehera. Halakoetan, gaitasuna du prokuradoreei edo abokatuei ahalorde orokorrak emateko, auzitan jardun dezaten.

16. artikulua. Idazkaria.

Patronatuak bere kideen artetik idazkari bat izendatuko du, eta bera arduratuko da fundazioaren administrazio-lanak zuzentzeaz, agiriak zaintzeaz, eta bileren aktak idazteaz. Akta horiek akten liburuan transkribatuko dira, behin onetsi eta presidenteak oniritzia eman dienean. Patronatuak ordainsaria ezar dezake, egoki baderitzo, idazkari-lanetan aritzeagatik.

17. artikulua. Presidenteordea.

Patronatuak presidenteorde bat izenda dezake bere kideen artetik, presidenteak ez dagoenean edo gaixorik dagoenean presidenteak eskatuta hura ordezteko.

18. artikulua. Diruzaina.

Patronatuak bere kideen artetik diruzain bat izenda dezake patronatuak zehazten dituen lanetan aritzeko. Ordainsaria ere ezar dakioke, nahi izanez gero.

19. artikulua. Funtzionamendu-araubidea.

Patronatuak urtero bi bilera egingo ditu, gutxienez. Urteko lehenengo hiru hilabeteetan nahitaez bilduko da ohiko aurrekontuaren likidazioa



eta aurreko ekitaldiaren balantzea onesteko, aurtengo jardueren oroitidazkia onesteko, eta kontuak emateko, patronatuak aurkeztu dituen kontuen gainean.

Deialdiak presidenteak egingo ditu, bilera izan baino hamar egun lehenago, gutxienez, eta modu eragingarrian. Deialdietan eguneko aztergaien zerrenda egon behar da.

20. artikulua. Eraketa eta erabakiak hartzea.

Patronatua baliozkotasunez eratuko da, lehenengo deialdian, bere kideen erdia gehi bat agertzen denean eta, bigarrenetan, bertaratu den kide kopurua edozein delarik.

Goragoko lerroaldeetan xedatu dena alde batera utzita, patronatua deituta joko da eta baliozkotasunez eratuko da kide guztiak bertaratu direnean eta aho batez erabakitzen dutenean bilera egitea.

Erabakiak gehiengoz hartuko dira, boto kopurua kontuan hartuta. Hurrengo kasuak salbuespen dira:

a) Estatutuak aldatzeko edo fundazioa bat-egiteko edo azkentzeko erabakiak; patronatuko kideak izendatzeko erabakiak, izan patronatua handitu delako, izan kideak ordeztu direlako edo hutsik dauden tokiak bete direlako; eta fundatzaile izateko atxikitzeak onesteko erabakiak. Horietan, patronatuko kideen hiru laurdenen aldeko botoa, gutxienez, behar da.

b) Beste edozein erabaki, baldin eta beste quorum bat edo aldeko botoen beste gehiengo bat eskatzen bazaie.

Presidentearen botoak berdinketak ebatziko ditu.

21. artikulua. Patronatuko kideak izendatzea eta hutsik dauden tokiak zehaztea.

Patronatuko kideen kopurua handitu behar denean

edo jadanik dauden kideak ordeztu behar direnean, batzak berak hartuko du erabakia, eta, horretarako, bere kideen hiru laurdenek aldeko botoa eman behar dute.

Patronatuan tokirik hutsik gelditzen bada heriotzagatik, ezgaitasuna edo gaikuntzarik ezagatik, zein epetarako izendatu eta epe hori igarotzeagatik, dimititzeagatik edo kargutik kentzeagatik, edo beste edozein arrazoi dela-eta kargua utzi denean, batzak berak hartuko du erabakia, eta, horretarako, bere kideen hiru laurdenek aldeko botoa eman behar dute.

Horren harira, patronatuan tokirik hutsik badago, patronatuak beste kide batzuk izenda ditzake edo, aukeran, hutsik dauden tokiak bete gabe utzi, betiere, kontuan hartuta patronatuak gutxienez hamabi kide izan behar dituela.

Arauketa horretatik kanpo daude patronatuko kideak, baldin eta Euskaltzaindiak izendatu behar baditu, Euskaltzaindiari dagokiolako kideak izendatzea modu eskusiboan.

IV. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN XEDEA ETA ONURADUNAK.

22. artikulua. Xedea eta onuradunak.

Fundazioaren xedea interes orokorraren zerbitzura dago, eta fundazioaren onuradun izan daitezke pertsona naturalak edo juridikoak, ezelako bereizkeriarik gabe.

Fundazioak bere onuradunei zenbatekoren bat ordaintzea galdatzen dienean berak ematen dituen zerbitzuak direla-eta, fundazioak zehaztuko du nor diren onuradunak soil-soilik zenbateko horren ordainketari begira. Halaber, fundazioak ematen dituen zerbitzuak nolakoak diren ikusita onuradunen kopurua mugatu behar denean, fundazioaren patronatuak zehaztuko eta hautatuko ditu modu ezeztazinean, kontuan hartuta izangaien merezimenduak, beharrianak, gaitasun ekonomikoa eta aprobetxatzeko aukerak; edo beste ezaugarri objektibo batzuei erreparatuta. Edozelan ere, inork ezingo dio eskatu fundazioari edo bere organoei, ez



banaka, ez taldeka, onura horiez gozatzea, oraindik onurak onartu ez bazaizkio, ezta pertsona zehatzei esleitzeko ezarri ere.

V. KAPITULUA. ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA.

23. artikulua. Fundazioaren ondarea.

Fundazioaren ondarea edozein motatako ondasunek eta eskubideek osa dezakete, indarreko legerian onartzen badira.

Fundazioaren ondarea osagai hauek izango ditu:

a) Hasierako zuzkidura, eraketa-eskrituran jasotakoa.

b) Kide fundatzaileek eta atxikitako kideek egindako ekarpenak eta ordaindutako kuotak, arruntak eta apartekoak; eta fundazioko kideek borondatez ordaindu dituzten kuotak eta egin dituzten ekarpenak, arruntak eta apartekoak.

c) Beste edozein ondasun edo eskubide, fundazioak aurrerantzean eskuratzen duena, kostu bidez nahiz doan, erakunde publikoek edo pribatuek eta norbanakoek egindakoak; bereziki, diru-laguntzak, dohaintzak, jarauntsiak edo legatuak. Dohaintzak, legatuak edo jarauntsiak onartu direla Babesletzari jakinarazi behar zaio.

d) Fundazioaren ondarearen fruituak edo errentak, ekoizkinak edo etekinak, baita fundazioaren jardueretatik ateratakoak ere, eta ematen dituen zerbitzuen ordainsariak, indarreko legeriarekin bat etorritik.

24. artikulua. Ondarea babestea.

Fundazioaren ondarea babesteko, hurrengoak hartuko dira kontuan:

a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak fundazioaren izenean egon behar dira, bere inbentarioan agertu, eta, hala behar izanez

gero, erregistroetan inskribatuta egon.

b) Ondasun higiezinak eta/edo eskubide errealak Jabetza Erregistroan inskribatuko dira fundazioaren izenean. Gainerako ondasunak, inskribatzeko modukoak badira, bakoitzari dagokion erregistroan inskribatuko dira.

c) Baloreak gordailuan utziko dira patronatuak zehaztutako finantza-establezimenduetan. Beste ondasun higigarri, jabetza-titulu eta gordailu-agiri guztiak, bai eta jabaria, edukitza, erabilera, gozamina edo fundazioaren beste edozein eskubide egiaztatzen duten agiriak ere, patronatuak edo bere eskuordetzea duen pertsonak gordeko eta zainduko ditu.

d) Fundazioaren ondasun eta eskubide guztiak liburu-erregistro batean zerrendatuko dira, inbentario batean, eta patronatuko idazkaria izango da horren arduraduna.

e) Ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 22. artikuluan zerrendatzen diren egintzak Fundazioen Erregistroan jasoko dira; dena dela, beste erregistroren batean ere inskribatuko dira, hala dagokienean.

25. artikulua. Araubide ekonomikoa.

Patronatuak urtero-urtero burutuko ditu, alde batetik, Fundazioaren ondare-egoera, egoera ekonomikoa eta finantza-egoera jasoko dituzten inbentarioa, egoera-balantzea eta emaitza-kontua; eta, beste aldetik, fundazioaren helburua betetzen ari dela azaldu eta frogatzen duen eta ekitaldi ekonomikoari dagokion oroitidazkia. Oroitidazkiak finantza-taulak, eta ondarean eta gobernu- edo zuzendaritza-organoetan izandako aldaketa guztiak jasoko ditu.

Horrez gain, Patronatuak hurrengo ekitaldirako gastu eta sarreraren aurrekontua prestatuko du urtero-urtero, oroitidazkiarekin batera, Babesletzari hori aurkezteko indarrean dagoen legeriaren arabera.

Gastu eta sarrera arruntak jasotzen dituen aurrekontuan agertuko dira Fundazioak edozein kontzepturengatik eskuratzen dituen sarrerak, eta sarreraren soberakinak Fundazioaren ondarea handitzeko



erabili ahal izango dira.

Ekitaldian zehar, Patronatuaren Batzak aldaketak egin ahal izango ditu aurrekontuan, horiek beharrezkoak badira aurrekontua kasuan-kasuan sortzen diren beharrianetara egokitzeko.

Patronatuak aurrekontu bereziak prestatuko ditu jarduera bereziak burutzeko beharrezkoak direnean. Aurrekontu guztiek, arruntek zein bereziek, orekatuak izan beharko dute.

Fundazioaren sarrerak ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 30. artikuluan xedatutako aginduen arabera erabiliko dira.

Ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen hiruhilekoan, Patronatuak aurreko ekitaldiko aurrekontu arruntaren likidazioa eta balantzea egingo ditu, eta ekitaldi horretako jardueren eta kudeaketa ekonomikoaren oroitidazkia ere bai; oroitidazki horrek behar besteko informazio bilduko du Fundazioaren helburua gauzatzeari eta Fundazioaren ondarearen egoerari buruzko ikuspegia lortzeko.

VI. KAPITULUA. ALDAKETA, BAT-EGITEA ETA AZKENTZEA

26. artikulua. Estatutuak aldatzea.

Patronatuak estatutu hauek alda ditzake sorrerako xedea hobeto betetzeko komenigarria den guztietan. Aldatzeko erabakiaren alde, gutxienez, kideen bi herenek eman behar dute botoa.

27. artikulua. Bat-egitea, elkarketa edo federazioa.

Patronatuak erabaki dezake, halaber, Fundazioa antzeko xedea dituzten beste erakunde batekin edo batzuekin batzea edo federatzea, baldin eta horrekin sorrerako xedea behar bezala zainduta gelditzen

bada. Erabakia hartzeko, beharrezkoa izango da kideen bi herenek horren aldeko botoa ematea.

Bat-egitearen kasuan, erabakia arrazoitua izango da, eta Babesletzaren onspena izan beharko du indarrean dagoen legeriaren arabera.

28. artikulua. Azkentzea.

Fundazioaren azkentzea gerta daiteke honako arrazoi hauek tartean izanik:

a) Ondarearen likidazioa.
b) Legezko xedapen baten ondorioz eta ebazpen judizial irmoaren ondorioz Fundazioa desegiten denean.

c) Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera bat-egite prozesua erabakitzen denean.

d) Fundazioaren baliabideen eskasia edo beste edozein arrazoi dela medio, estatutu hauetan jasotzen diren aginduen arabera, Fundazioaren helburua betetzea ezinezko gertatzen denean, salbu eta Patronatuko kideen hiru laurdenek estatutuak aldatzea edo beste fundazio batekin bat egin edo elkartzea erabakitzen dutenean.

29. artikulua. Prozedura.

Fundazioa azkentzeko, espedientea irekiko da, eta, bertan, honako hauek jasoko dira:

a) Horretarako zioaren azalpen arrazoitua.
b) Fundazioaren balantzea.
c) Likidatzaileak izendatzeko proposamena, eta jardunbiderako eta Fundazioaren ondarearen edo horren salmentaren ekoizkinen banaketarako proiektua. Aipatutako banaketa edo esleipena Patronatuak burutuko du, ondare horren onuradun beste fundazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuk izendatuz, antzeko helburuak badituzte eta azkendu den fundazioaren antzeko helburuak bete ahal badituzte.

XEDAPEN IRAGANKORRA:

Estatutu hauen 14. artikuluan ezarri denari salbuespen egiteko, lehenengo patronatuko batza SEI kidek osatuko dute, gehiagorik ez, eta, asko jota, 2016ko abenduaren 31ra arte izendatuko dira. Sei kide horiek, fundazioa sortzeko unean, "REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA"



Andrés María Urrutia Badiola. Xabier Kintana
Urutiaga. Xarles Videgain Castet. Adolfo Arejita
Oñarte-Etxebarria. María Sagrario Aleman Astiz.
Jean-Baptiste Coyos Etchebarne. Errubrikatuak.-----

This image shows a single sheet of white paper with horizontal blue ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There is no handwriting or other markings on the paper.